# AUGUSTIN ZUBIKAI! AGUR!



Augustin
Zubikarai Bedialauneta
(Maria Jesus Erkiagaren alarguna)
(Goian bego)

Illeta

GAUR
Martitzena 13
Arratsaldeko
7,00retan
ONDARROAko
Andra Mari
Parrokian

Galdakaon il zan atzo, garagarrilaren 12an, 89 urte ebazala, Eleiza Amaren Sakramentuak eta Aita Santuaren Bedeinkaziñoa artu ondoren

Bere seme-alaba, Jose Agustin (†), Juan Anton, Alejandro (†) Beatriz, Maria Jesus eta Fco. Xabier; suin-errain, Aurora Diaz Rementeria, M. Elena Abeledo (†) eta Juan Bautista Ibaibarriaga; iloba, Gorka, Igor, Nerea, Juan Anton, Maria, Elena Beatriz, Maddi, Lore eta Beñat; anai-arreba, Jose Mari (†), Imanol (†), Paulin, Ane, Karmel, Peli (†) eta Begoña; koinata-koinata, Bitxori Idoeta, eta beste senideak.

Garagarrillaren 12n. Egunean, 2004n. Urte onetan, agur egin euskun beti bazkide ta laguntzaille ona, bai Euskerazaleak Alkartean eta bai Euskerazaintzan, izan dogun gure Augustin'ek. Aspaldion egoan gaisorik, ibilli-eziñik eta berbarik egin eziñik, ainbeste berba esan eta idatzi ebazan gure Augustin!

Ondarroa'n izan zan bere illetan gizon ospetsu eta euskaldun on asko alkartu giñan, geure aldetik azken-agurra egiteko.

Berak benetan maite izan ebazan Euskerazaintza eta Euskerazaleak, naita maitasun ori agertu ez illeta aretan. Isillean eta erriaren alde egiten dan lana nork ordaindu ez dala peituko uste dogu.

Aspaldion gure lankideen artetik asko joan jakuz: Puxana, Kerexeta, Zubiri, Anes Arrinda… Goian begoz. Euren utsunea betetea ez da gauza erreza izango, langille barriak bear doguz! Baiña betikoak lan geiago eginda baiño ez ba'da be, gure jokabideak aurrera egingo dau.

**OLAZAR'tar Martin'ek**



Augustin Zubikarai
Bedialauneta jauna

Euskaldun jatorra
Idazle oparoa
Esatari atsegina

"Zure laguntza estimagarriagatik, eskerrik asko"

ARRATE IRRATIA



Augustin Zubikarai
Bedialauneta jauna
(Goian bego)

Atzo hil zan Galdakaon, 2004ko uztailaren
12an, 89 urte zituala.

Eusko Abertzaleak
Taldeko Batzarkide ohia

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK-EAJ/PNV



Augustin Zubikarai Bedialauneta
"ONDARROAko SEME TXIT ARGIA"
(Goian bego)

Atzo hil zan Galdakaon, 2004ko uztailaren 12an, 89 urte zituala.

ONDARROAko UDALA

*"Nire berbak itsastarrenak dira; bigunak batzuk, garratzak besteak nire irudimenak itsas-irudietatik sortuak".*

Gorputzaren harrera, Udal Pleno Aretoan izango da arratsaldeko 5etatik aurrera.

Ondarroa, 2004ko uztailak 13a



Augustin Zubikarai
Bedialauneta jauna
(Goian bego)

Atzo hil zan Galdakaon, 2004ko uztailaren
12an, 89 urte zituala.

ARRANONDO KULTURA ALKARTEA

[illegible]

Ondarroa, 2004ko uztailak 13a